Epealdi bakoitzerako eskariaren kopuruek denbora laburragorako adierazitako eskaria ere biltzen dute. Hau da, bi urterako eskarian sartu dira urtebeterako eskaria adierazi duten etxebizitzak ere. Ildo beretik, lau urterako eskaria adierazi dutenen barnean daude urtebeterako eta bi urterako eskaria adierazi duten etxebizitza Iturria Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Estatistika

### 2017ko Urtarrila arte egindako EITen amaierako emaitza



### 3 urtetara aurrez ikusitako 75.000 EIT: burutze urtearen arabera banaketa



EAEko etxebizitza birgaitzeko planaren esparruan, zaharberritzei eta laguntzei lotutako esku-hartzeren bat behar duten etxebizitzak.

### 5.1. Birgaitzeko premiaren kuantifikazioa EAEn

- Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan birgaitzeko eskariaren kuantifikazioari lotutako azken informazioa 2015eko Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkestak ematen digu. Orduko hartan 58.017 etxebizitzak (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako etxebizitza % 6,7k) adierazi zuten 4 urteko epean birgaitzeko premia aurreikusten zutela.
- Informazio eguneratua eskuratzeko zain, azpimarratzekoa da EITei lotutako araudiak inpaktu handia duela eraikin zaharren birgaitzeari dagokionez. Hala, 2017ko urtarrilera arte 8.233 EIT erregistratu dira EAEn, eta horietako askotan (% 44tan), ikuskapenen ondoriozko premiazko obrak (urtebetean egin beharrekoak) egin behar izan dira.
- Are garrantzitsuagoa da EITek 2017-2019 aldiaren izango duten inpaktua; izan ere, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 75.000 EIT egingo direla aurreikusten du, gehienak 2018an.

## 5. Etxebizitza birgaikuntza

kuantizazioa

obra-lizentziak

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitza birgaikuntza


6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza laguntza adierazle

8 laburpena eta ondorioak




### EAEko obra handiko lizentzien bilakaera, obra motaren arabera. 2001-2016



Iturria: Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. Eusko Jaurlaritza

### EAEko egikaritze materialeko aurrekontuen bilakaera obra-zuzendaritzako bisetan (mila €-kotan), 2001-2016



Iturria: Sustapen Ministerioa

### 5.2. Sektoreko jardueraren bilakaera: obra berriei lotutako lizentziak eta birgaitze-lanei lotutakoak

- 2016an obra-lizentzien kopuruan izan den bilakaera positiboak erakusten digu eraikuntza-sektoreak epe laburrean jardura hobetu egin duela; horixe azalertzen da Eusko Jaurlaritzako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikak obra-lizentzien kopuruari emandako datuetan. Izan ere, 2016an 3.145 obra-lizentzia eman ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; 2015ean baino % 15,6 gehiago, eta 2015ean izandako hazkundetik (+% 6,3) gora.
- Joera positibo hori oso sendo ageri da, gainera, eraikuntza berriko obretarako lizentzietan (+% 16,6) nahiz birgaitze-lanetarakoetan (+% 14,5) gertatzen delako, eta bi kasuetan 2015eko hazkunde-tasa gainditu delako (+% 13,8 eta +% 5 hurrenez hurren urte horretan).
- Birgaitze-jardunari bereziki begiratu gero, ekarpen positiboa egiten dio eraikuntzaren sektoreari, eta azken urteotan obra-lizentzien kopuruan maximo historikoetara ere iritsi da, krisi aurreko urteetako datuetatik gora. Testuinguru horretan, birgaitze-lanei lotutako obra-lizentziak 2016an emandako lizentzia guztien % 81,6 izan dira.
- Dena dela, eta birgaitze-jarduerak izan duen hazkundera kontuan hartuta ere, sektore horren inpaktu ekonomikoa ez da horren handia. Halaxe ondoriozta daiteke, ikusirik halako lizentzietan lotutako aurrekontua murriztu egin dela 2015etik 2016ra.

## 6. Finantza krisiaren inpaktua

finantza  
ahalegina/  
zorpena

hipoteka  
betearazpenak

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza


6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza laguntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak




Eratutako hipoteken kuotaren bilakaera, soldata-kostuarekiko (finantza-ahalegina). EAE eta Estatua. 2004-2016



Iturria: Espainiako Jabetzen, Ondare Higiezin eta Merkataritza Ondareen Erregistratzaileen Elkargoa. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika.

Eratutako hipoteken kuoten bilakaera. EAE eta Estatua, 2004-2016



Iturria: Espainiako Jabetzen, Ondare Higiezin eta Merkataritza Ondareen Erregistratzaileen Elkargoa. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika.

EAEn formalizatutako hipotekei, etxeen zorpetze-mailari, hipoteka-betearazpenei eta kaleratze judizialei buruzko adierazle nagusiak, eta Estatuarekiko alderaketa.

### 6.1. Etxeen finantza-ahalegina eta zorpetze-maila

- Erregistratzaileen Elkargoko Higiezin Erregistro Estatistikak emandako informazioaren arabera, azken urteotan zorpetu diren familien egoera askoz ere hobea da higiezin boamaren garaian hipoteka sinatu zutenena baino. Krisi-garaian etxebizitzaren prezioak izan duen beherakada handiak azaltzen du, hein handi batean, hobekuntza hori.
- 2016an hipoteka-bermedun mailegua sinatu duten familien finantza-ahalegina portzentajeko 20 puntu txikiagoa da, joan den hamarkadaren amaieran etxebizitza erosteko hipoteka-kreditua sinatzen zutenena baino.
  - La cuota media de las hipotecas constituidas en 2016 en la CAE 2016an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eratu diren hipoteken batez besteko kuota 593 eurokoa da, 2015ean neurtu ziren hileko 619 euroak baino % 4,2 gutxiago. Estatuko batez bestekoarekin alderatuz gero, berriz, EAEn 2016an sinatutako hipoteken batez besteko kuota 70 euro garestiagoa da.
  - Higiezin boamaren garaian aldean, ordea, hipoteka berrien batez besteko hileko kuota 360 euro txikiagoa da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.
  - Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako familiek 2016an kuota hori ordaintzeko egin behar izan duten finantza-ahalegina (hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta soldaten kostuaren arteko erlazioa) pixka bat txikiagoa da EAEn (% 28,6) Estatuan baino (% 27,5), EAEko langileen soldatak altuagoak direlako. 2015eko datuekin alderatuta, portzentajeko 1,2 puntu egin du behera.

## 6. Finantza krisiaren inpaktua

finantza  
ahalegina/  
zorpina

hipoteka  
betearazpenak

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza


6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza laguntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak




### Hipoteka betearazpen eta kaleratze judizialen bilakaera EAE 2007-2016




Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

### Gauzatutako kaleratze judizialen bilakaera arazoien arabera 2013-2016



### Hipoteka betearazpena duten etxebizitzaren bilakaera EAE 2014-2016 EINaren arabera



Iturria: EIN

## 6.2. Krisiaren inpaktua: hipoteka-betearazpenak eta kaleratze judizialak

- 2009az geroztik lehen aldiz, lehen auzialdiko epaitegietan erregistratutako hipoteka-betearazpenen kopurua hazi egin da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Botere Judizialeko Kontseilari Nagusiak krisiaren inpaktuari buruz emandako informazioaren arabera. 2016an 751 hipoteka-betearazpen izan ziren EAEn, 2015ean baino % 5,3 gehiago. Halere, INEk 2014az geroztik kaleratzen duen estatistika etxebizitzaren gaineko hipoteka-betearazpenetan zentratzen da eta, horren arabera arabera, halako betearazpenek nabarmen egin dute behera EAEn 2016an.
- EAeko hipoteka-betearazpenen kopuruan izandako gorakada hori ez dator bat Estatu osoan antzematen den joera positiboarekin. Izan ere, Estatuan hipoteka-betearazpenen kopurua nabarmen murriztu da 2016an: 68.135 izan ziren 2015ean eta 48.410 izan dira 2016an, % 21 gutxiago.
- Esan behar da, baina, hipoteka-betearazpenen eragina txikiagoa dela EAEn Estatu osoan baino. Izan ere, EAEn 2016an 35 hipoteka-betearazpen izan dira 100.000 biztanleko eta Estatuan, berriz, ratio hori hiru aldiz handiagoa da: 104 betearazpen 100.000 biztanleko.
- Kaleratze judizialen bilakaerari dagokionez, 2016. urtea oso positiboa izan da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: 1.653 guztira, 2015ean baino % 14 gutxiago.
- Ildo horretan, kaleratze judizialen kopuruaren bilakaera hobea izan da EAEn Estatuan baino, bigarren eremu horretan % 3,7 egin baitute behera. Era berean, kaleratze judizialen eragin erlatiboa askoz ere txikiagoa da EAEn Estatuan baino, 2016an 76 kaleratze izan baitira 100.000 biztanleko, Estatuoko ratioaren erdia (144 kaleratze 100.000 biztanleko).

## 6. Finantza krisiaren inpaktua

finantza  
ahalegina/  
zorpëna

hipoteka  
betearazpenak

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera


5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua


7 etxebizitza laguntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak

JANak jasotako kaleratzeak /100.000 biz. 2008-2016




JANak aurkeztutako Hipoteka berearazpenak /100.000 biz. 2007-2016




Iturria: EInTik eta Botere Judizialaren kontseilu Nagusiko Estatistikatik abiatuz jasotako datuak

Hipoteka-betearazpenen kopuruaren bilakaera EAEen eta Estatuan 2008-2016 (urteko aldakuntza tasa)



Kaleratze Hipotekarioen bilakaera EAEen eta Estatuan 2008-2016 (urteko aldakuntza tasa)



- Aurreko ekitaldietan bezala, EAEn izandako hiru kaleratze judizialeatik bi (% 65) hiri-errentamenduen legerari lotuta egin dira, eta askoz ere gutxiago (% 26) hipoteka-betearazpenari lotuta.
- Azkenik, esan behar da 2016an EAEn 94 izan direla ordainean emateak<sup>1</sup>; 2015ean baino % 9,3 gehiago. Estatuan guztiz kontrakoa gertatu da, EAEn izan ezik gainerako autonomia-erkidegoetan beherakada handia egon baita 2015etik 2016ra. Halere, EAE da Estatutako autonomia-erkidegoen artean ordainean emandakoen intzidentzia txikiena duena, biztanleriaren arabera (100.000 biztanleko 4,3), Estatuko batez bestekoa baino askoz ere gutxiago (100.000 biztanleko 8,4). Beste autonomia-erkidego batzuetan (Valentzian, Katalunian eta Andaluzian, esate baterako), EAEko ratioa seikoiztu ere egiten dute.

1. Ordainean ematea zera da: hipotekatutako etxebizitza hartzekodunari ematea, haren bidez zorrean duen zenbatekoa guztiz kitatzeko. Ondorioz, zorduna zorretik libre gelditzen da. Zordunak eta hartzekodunak eskualdatze hori adosten dute, eskritura publiko bidez gauzatu, eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzen dute ondoren.

## 6. Finantza krisiaren inpaktua

finantza  
ahalegina/  
zorpëna

hipoteka  
betearazpenak

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 finantza krisiaren inpaktua

7 etxebizitza laguntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak




### Ordainean emateen bilakaera EAEn eta Autonomi erkidegoen arabera 2015-2016

	2015	2016	2015-2016
Kantabria	39	26	%-33,3
Errioxa	52	33	%-36,5
Asturias	63	47	%-25,4
Extremadura	66	100	%51,5
EAE	86	94	%9,3
Nafarroa	172	57	%-66,9
Galizia	268	186	%-30,6
Balearrak	290	159	%-45,2
Gaztela-Leon	291	267	%-8,2
Aragoi	315	114	%-63,8
Gaztela-Mantxa	387	384	%-0,8
Kanariak	481	411	%-14,6
Madril	571	444	%-22,2
Murtzia	928	597	%-35,7
Valentzia	2.118	1.611	%-23,9
Andaluzia	3.136	1.997	%-36,3
Katalunia	3.351	2.022	%-39,7
Estatua	12.614	8.549	%-32,2

Iturria: Espainiako Jabetzen, Ondare Higiezin eta Merkataritza Ondareen Erregistratzaileen Elkargoa. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika.

### Ordainean emateen inzidentzia autonomi erkidegoen arabera EAEn 2016 (Ordainean emate kopurua/100.000 biztanle)



Iturria: Espainiako Jabetzen, Ondare Higiezin eta Merkataritza Ondareen Erregistratzaileen Elkargoa. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika.

## 7. Etxebizitza languntzak adierazle

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitzaren birgaitzuntza


6 hipoteka-finantzaketa

7 etxebizitza languntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak



### Amaitutako etxebizitzaren bilakaera, tipologiaren arabera 2000-2016



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritz) eta Sustapen Ministerioa

### Babestutako alokairu parkearen dimentsionamendua EAEn 2001-2016

Urtea	Babestutako alokairu parkea	Babestutako etxebizitza parkea	Alokairu parkearen kuota (%)
2001	740	36.029	2,1
2005	7.660	49.679	15,4
2010	19.595	63.103	31,1
2011	20.513	70.067	29,3
2012*	18.445	74.019	24,9
2013*	18.129	74.480	24,3
2014*	17.770	77.468	22,9
2015*	17.504	77.399	22,6
2016	17.801	76.330	23,3

\* Zifra hauek etxebizitza sozial guztia eta alokairuko BOEak, eta Biziguneko etxebizitzak barne dituzte  
Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritz)

- Etxebizitza babestuen sustapenaren pisu erlatiboa (eraikitako etxebizitza berri guztiekiko erlazioa) maximo historikoetatik hurbil egon da 2016an EAEn. Izan ere, 2016an burututako etxebizitzaren % 46 babestua izan da. Estandura-maila altu horren atzean dago, hein batean, 2016an etxebizitza berri libreen ekoizpena oso makala izan dela.
- Testuinguru ekonomiko eta sozial konplexu honetan, EAEko herri-administrazioek alokairua sustatzearen aldeko apustuari eutsi diote eta, ondorioz, EAEko alokairuko etxebizitza-parkearen % 40n esku hartu dute, dela etxebizitza babestuen bidez, dela laguntza- eta prestazio-sistema garrantzitsuen bidez:
  - EAE 76.000 etxebizitza babestu baino gehiago daude, horietatik % 23 alokairu-erregimenean eta 17.800 errenta soziala ordainduz.
  - Alokairurako laguntza sozialen sistema funtsezkoa da egoera txarrean dauden familientzat, eta erreferentzia ere bada Estatuan. Izan ere, 44.000 onuraduni alokairuko etxebizitza ordaintzen lagundu die, eta 100 milioi eurotik gorako aurrekontua erabili da horretarako.
- Azkenik, etxebizitzak birgaitzeko laguntzak dira EAEko etxebizitza-politikaren beste alderdi garrantzitsuetako bat. 2016an 15,8 milioi euro bideratu dira 12.655 etxebizitzatan birgaitze-lanak egitera, dela elementu pribatuetan, dela elementu erkideetan. 2015eko laguntzen aldean, hazkunde txiki bat izan da.



## 7. Etxebizitza languntzak adierazle

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jardura

5 etxebizitzaren birgaikuntza


6 hipoteka-finantzaketa

7 etxebizitza languntzak adierazle


8 laburpena eta ondorioak



Alokabidek kudeatutako etxebizitza parkearen bilakaera 2003-2016



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)




EAEn diruz lagundutako alokairuko parkearen ehunekoaren zenbatespena, laguntza motaren eta gastu osoaren arabera. 2016

	Laguntzen hartzaileak	Alokairuko parke osoaren %-a	Guztizko gastua (eurotan)
Emantzipaziorako oinarrizko errenta	192	0,2	346.773
Etxebizitzarako prestazio osagarria	35.493	32,6	90.971.252
Gizarte-larrialdiko laguntzak	8.469	7,8	11.665.663
Etxebizitzarako ekarpen ekonomikoa	22	--	38.000
<b>Guztira</b>	<b>44.176</b>	<b>40,6</b>	<b>102.983.688</b>

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)

Birgaitutako etxebizitzaren kopuruaren eta birgaitzeko laguntzen zenbateko osoaren bilakaera. 2006-2016



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)

## 8. Laburpena eta ondorioak

1 testuinguru  
ekonomiko  
orokorra

2 etxebizitza  
eskaintza

3 etxebizitza  
beharrak eta  
eskaria

4 higiezin  
merkatuaren  
jarduera

5 etxebizitzaren  
birgaikuntza

6 hipoteka-  
finantzaketa

7 etxebizitza  
laguntzak  
adierazle

8 laburpena eta  
ondorioak



- 2016an sendotu egin da EAEko ekonomia. 2014an abiatu zuen suspertze-prozesua, 2008ko krisiaren ondoren. BGPda % 3,1 hazi da, 2015ean baino bi hamarren gehiago, eta enpleguak ere nabarmen egin du gora (+% 1,2), nahiz eta 2015ean baino erritmo apalagoan izan (+% 1,4 urte horretan).
- 2016an EAEko eraikuntza-sektoreak oso bilakaera positiboa izan du, sei urtean beherako bidean egon eta 2015ean hazkunde txikitxo izan ondoren. 2016an, EAEko produkzioa % 1,6 hazi da 2015ekoaren aldean. Hartara, aurreko urteko hazkunde-tasa hirukoiztu egin da. Gainera, % 1,1eko hazkundea egon da sektoreko enpleguan. Horrekin batera, sektoreko eragileen aurreikuspenak gerotik eta hobekia dira, 2012tik aurrera gertatu den bezala, Eusko Jaurlaritzako Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika datuei erreparatuta.
- Halere, etxebizitza berriak egiteko jardunak ez du aurrera egitea lortzen, eta horrek nabarmen galgaten du EAEko eraikuntza-sektorearen susperraldi potentziala. Izan ere, 2000. urteaz geroztiko minimo historikoa izan da 2016an etxebizitza berrien ekoizpenean: 3.512 etxebizitza burutu dira, 2015ean baino % 36,9 gutxiago.
- Etxebizitza berriak eraikitze jardunaren beherakada handi horrek zapuztu egin du 2015ean antzeman zen hobekuntza. Izan ere, urte horretan 5.536 etxebizitza eraiki ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2014an baino % 15,4 gehiago.
- Etxebizitza berri libreen eraikuntzak izan du portaerarik txarrena 2016an (-% 48), burututako etxebizitza babestuen beherakada txikiagoa izan baita (-% 16). Bizkaian izan da eraikuntza-jardueraren beherakadarik handiena; Gipuzkoan jaitsiera apalagoa izan da, eta nabarmenezkoa da probintzia horretan bukatu diren etxebizitza babestuen kopurua (+% 35).
- Eraikuntza berri babestuen eraikuntzak 2016an beherantz jarraitu badu ere, etxebizitza libreen produkzioa baino hein txikiagoan apaldu da eta, horren ondorioz, etxebizitza babestuen pisu erlatiboak gora egin du: urte horretan eraikitako etxebizitza berrien % 46 babestuak izan dira.
- Eraikuntza-jarduerak izan duen beherakada handiarekin batera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan saldu gabeko etxebizitza berrien stocka asko txikitu da 2016an (-% 34), 2015eko prozesua areagotuz (-% 14,5 urte horretan). 2016ko abenduan, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian saldu gabe dauden etxebizitza guztien % 0,6 dira etxebizitza berriak, Estatuko batez bestekoa (% 1,9) baino askoz ere gutxiago.
- Eraikuntza-sektoreak aurreikuspen onak ditu. 2016an, % 14,6 hazi da obra-lizentzien kopurua EAEn, 2015ean izandako % 6,3ko hazkundetik gora. Bilakaera positibo hori eraikuntza berriko obra-lizentzien kopuruan (+% 16,6) nahiz birgaitze-lanetarako lizentzietan (+% 14,5) gertatu da. Dena dela, batez ere birgaitze-jarduerak bultzatu du sektorearen dinamismoa, azken urteotan jarduera mota horri lotutako obra-lizentzien kopurua maximo historikoetara iritsi baita.
- Testuinguru horretan, birgaitze-lanei lotutako obra-lizentziak 2016an emandako lizentzia guztien % 81,6 izan dira. Esan behar da, ordea, lizentzia horiek enpresen emaitzen kontuan duten pisua askoz ere txikiagoa dela, beraien kostua ere txikia izan ohi da eta. EITek inpaktu positiboa dute sektorearen jardueran, eta datozen urteetan obrak ugaltu egingo direla aurreikusten da, eraikin zahar askok egin beharko baitute ikuskapen teknikoa (75.000 eraikinek, zehazki).

## 8. Laburpena eta ondorioak

1 testuinguru  
ekonomiko  
orokorra

2 etxebizitza  
eskaintza

3 etxebizitza  
beharrak eta  
eskaria

4 higiezin  
merkatuaren  
jarduera

5 etxebizitzen  
birgaikuntza

6 hipoteka-  
finantzaketa

7 etxebizitza  
laguntzak  
adierazle

8 laburpena eta  
ondorioak



- Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzari buruzko Estatistikaren arabera, etxebizitza erabilien nahiz berrien metro koadro erabilgarriaren prezioak beherako joerari eutsi diote 2016an ere. Beste aldean, alokairuaren prezioak gorako bidea egin du azken urteotan.
  - Salgai dauden etxebizitza erabilien metro erabilgarriaren batez besteko prezioa % 4,9 merkatu da 2016an (-% 4,4 baino gehixeago 2015ean), eta etxebizitza berri libreena, berriz, pixka bat gutxiago: -% 2,8 2016an (-% 2,2 2015ean).
  - Alokairuko etxebizitza libreen batez besteko errenta, berriz, % 0,9 garestitu eta 879 eurotan finkatu da, 2015ean izandako hazkundearen ildotik (+% 3,2ko hazkundera, 872 euro hilean).
- Baina jaitsierak jaitsiera, EAE da 2016an Estatuan etxebizitzarik garestienak dituen autonomia-erkidegoa, Sustapen Ministerioaren Prezioei buruzko Estatistikak adierazten duenez. Izan ere, etxebizitza erabiliaren metro koadro eraikiaren batez besteko prezioa Estatukoa baino % 55 eta % 56 garestiagoa da etxebizitza erabilien eta etxebizitza berri libreen kasuan, hurrenez hurren.
- Atzeraldian etxebizitzaren prezioak izan duen merkatze-prozesuak EAEko higiezin merkatuaren jarduera suspertzen lagundu du, eta 2016an 18.730 salerosketa egin dira, 2015ean baino % 13 gehiago. Halere, suspertze hori, hein handi batean, etxebizitza erabilien merkatuan oinarritu da:
  - 2016an 14.465 etxebizitza erabili salerosi dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2015ean baino % 18 gehiago, eta 2007an izandako maximo historikotik gora (14.369 etxebizitza salerosi ziren orduko hartan).
  - Etxebizitza berri libreen salerosketa kopurua ere % 7,1 hazi den arren, 2016ko eragiketa kopuruak (2.532) oso apala izaten jarraitzen du: krisi aurreko urteetan izandako eragiketen heren bat inguru.
- Higiezin merkatuaren susperraldiaren testuinguruan, hipoteka-merkatuaren jarduerak gora jarraitzen du 2016an ere. Urte horretan, 15.201 hipoteka lotu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2015ean baino %7,5 gehiago. Hazkunde horrek 2015eko hazkunde handia (+% 24,5) sendotu du, eta 2015era arteko beherako joera irauli (2006tik 2014ra bitartean, 2010ean baino ez zen hasi EAEn sinatutako hipoteken kopurua). Nolanahi ere, hipoteken merkatuaren jarduera krisi aurreko garaietatik urrun dago, orduko hartan 40.000 hipoteka baino gehiago sinatzen baitziren urtean.

## 8. Laburpena eta ondorioak

1 testuinguru  
ekonomiko  
orokorra

2 etxebizitza  
eskaintza

3 etxebizitza  
beharrak eta  
eskaria

4 higiezin  
merkatuaren  
jarduera

5 etxebizitza  
birgaikuntza

6 hipoteka-  
finantzaketa

7 etxebizitza  
laguntzak  
adierazle

8 laburpena eta  
ondorioak



- Oraindik ere nabarmena da lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskari eraginkorraren ahulezia, eta horrek azaltzen du, hein handi batean, alokairuko etxebizitzaren eskariak hartu duen garrantzia.
  - 2015eko Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, lau urtera begira 13.000 etxebizitzako eskaria dago, etxebizitza behar izateaz gain, horretarako dirua ere baduten pertsonen aldetik. Eskari horren zati handiena alokairu-bidez burutuko litzateke, beharrezana adierazi duten pertsonen arabera.
  - Etxebiden etxebizitza babestua eskatu dutenen 10 lagunetatik 8k alokairua aukeratu dute. Nabarmendu egin behar da kasu horietako asko dagoeneko alokairuan bizi direla, emantzipatuta.
  - Etxebizitza Premiei eta Eskariari buruzko Inkestaren arabera, lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia duten 72.000 pertsonetatik gehienek ez dute premia hori asetzeko diru-sarrera nahikorik. Datu horrek agerian jartzen du krisiak zer-nolako inpaktu handia eduki duen laneratzeko arazo handienak dituztenen artean, hala nola emantzipatu gabe daudenen gazteen artean.
- 2016an ere, krisiak gogor kolpatu ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar asko. Inpaktu horren dimentsiorik latzenetako bat azaleratzen dute hipoteka-betearazpenek eta kaleratze judizialek:
  - 2016an 751 hipoteka-betearazpen izan dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2015ean baino 40 gehiago (+% 5,3). Kaleratze judizialei dagokienez, 1.653 izan dira, aurreko urtean baino % 14 gutxiago, eta hiru kasutatik bi hiri-errentamenduen legeari lotuta. Dena dela, biztanleria aintzat hartuta, hipoteka-betearazpenek eta kaleratze judizialek askoz ere eragin txikiagoa dute EAEn, Estatuan baino. Izan ere, EAEko etxebizitzaren hipoteka-betearazpenei buruz INEk kaleratutako datuen arabera, 2015etik 2016ra jaitziera garrantzitsua gertatu da.
  - 2016an 94 ordainean emate egin dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 2015ean baino % 9,3 gehiago. Halakoek 100.000 biztanleko duten intzidentziari erreparatuta, EAE Estatuko autonomia-erkidegoen azken postuan dago (halakoen intzidentziarik txikiena duena, alegia).
- Egoera zail horren aurrean, EAEko herri-administrazioek eginkizun garrantzitsua bete dute, krisiak gogorren kolpatu dituen taldeei etxebizitza eskuratzeko lagunduz. Krisi ekonomikoak eta aurrekontuen krisiak etxebizitza babestuak eraikitzeke eritimoa moteldu badute ere, azpimarratzekoa da EAEko prestazio- eta laguntza-sistemak jokatu duen eginkizun garrantzitsua. 2016an, 44.000 onuraduni baino gehiagorik lagundu die.

## Adierazleen aurkibidea

1 testuinguru  
ekonomiko  
orokorra

2 etxebizitza  
eskaintza

3 etxebizitza  
beharrak eta  
eskaria

4 higiezin  
merkatuaren  
jarduera

5 etxebizitzaren  
birgaikuntza

6 hipoteka-  
finantzaketa

7 etxebizitza  
laguntzak  
adierazle

8 laburpena eta  
ondorioak



1.

Testuinguru  
ekonomiko orokorra

- EAEko merkatu prezioan benetako BPGd alderatuaren bilakaera eta eraikuntza sektorearen balio erantsia 2008-2016. (Urtetik urterako aldakuntza tasa)
- Biztanleria okupatuaren aldakuntza 2008-2016 aldian (urtetik urterako aldakuntza-tasak)
- Eraikuntza-sektorean eta EAEko ekonomia osoan ari den biztanleriaren aldakuntza garbia 2008-2016 (okupatutako mila pertsonatan eta pilatutako aldakuntza tasa)
- Eraikuntza sektorearen alderatutako pisu erlatiboaren bilakaera EAEn eta Estatuan
- Higiezin merkatuaren dinamismo-indizearen bilakaera 2004-2016

2.

Etxebizitza eskaintza

- Burututako etxebizitzaren bilakaera, tipologiaen arabera . 2000-2016
- Saldu gabeko etxebizitza berrien bilakaera (2015-2016) eta EAEko eta Estatuako parkean duen pisu erlatiboa
- Burututako etxebizitza libre eta babestuen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. 2006-2016
- M<sup>2</sup> erabilgarriaren prezioen bilakaera EAEn, etxebizitza motaren arabera. 2000-2016
- Etxebizitza erabilien metro koadro erabilgarriaren prezioa, Lurralde Historikoen arabera. 2007-2016
- Alokairuko etxebizitza babestu eta libreen hileko errentaren bilakaera. 2000-2016<sup>1</sup> (euro)
- Alokairuko etxebizitza libreen batez besteko errenta, Lurralde Historikoen arabera. 2007-2016 (euro)

3.

Etxebizitza  
beharrak eta eskaria

- Etxebizitza-premia duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak. 2008-2015
- Etxebizitza eskaria edukitze-erregimenaren arabera 2008-2015
- Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak diru-sarrera propioen mailaren arabera 2015
- Lehenengo etxebizitza eskuratzeko eskariaren bilakaera EAE. 2013-2015
- Etxebizitzaren eskatutako etxebizitza babestuak (eskaera-espedienteak). 2005-2016 Bilakaera
- Etxebizitzaren izena emandako pertsonen eskatzen duten etxebizitza mota. 2005-2016 bilakaera
- Etxebizitzaren eskatutako etxebizitza babestuen eskariaren bilakaera 2015 eta 2016 bitartean, Lurralde Historikoen eta edukitze-erregimenaren arabera

4.

higiezin  
merkatuaren jarduera

- Etxebizitza-salerosketen bilakaera, etxebizitza motaren arabera. EAE, 2004-2016
- Formalizatutako etxebizitza-salerosketen bilakaera, Lurralde Historikoen arabera. 2004-2016
- Etxebizitza erabilien metro koadro eraikiaren batez besteko prezioaren bilakaera EAEn eta Estatuan (2012-2016), eurotan.
- Etxebizitza erabilien eraikitako metro koadroaren batez besteko prezioen rankinga, autonomia-erkidegoaren arabera, 2016 (euro)
- Etxebizitza berri libreen metro koadro eraikiaren batez besteko prezioaren bilakaera EAEn eta Estatuan 2012-2016
- Etxebizitza berri libreen metro koadroaren batez besteko prezioen rankinga, autonomia-erkidegoaren arabera, 2016
- EAEn formalizaturiko hipoteken bilakaera, 2003-2016. Zenbateko absolutuak eta urtetik urterako aldakuntza-tasak
- Estatuan eratutako hipoteken kopuruaren bilakaera, 2003-2016. Balio absolutuak eta urtetik urterako aldakuntza-tasak
- Etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken batez besteko zenbatekoaren bilakaera (eurotan). EAE eta Estatuak. 2003-2016

## Adierazleen aurkibidea

1 testuinguru ekonomiko orokorra

2 etxebizitza eskaintza

3 etxebizitza beharrak eta eskaria

4 higiezin merkatuaren jarduera

5 etxebizitzaren birgaikuntza

6 hipoteka-finantzaketa

7 etxebizitza laguntzak adierazle

8 laburpena eta ondorioak



Etxebizitzaren birgaitzea

5.

- Etxebizitza Birgaitzeko beharraren kuantifikazioa Lurralde Historikoaren arabera. EAE 2005-2015
- Etxebizitza birgaitzeko premieren kuantifikazioa, premia gauzatzeko aurrekusten den denboraren arabera. Alderaketa, 2011-2015
- 2017ko Urtarrila arte egindako EITen amaierako emaitza
- 3 urtetara aurrez ikusitako 75.000 EIT: burutze urtearen arabera banaketa
- EAEko obra handiko lizentzien bilakaera, obra motaren arabera. 2001-2016
- EAEko egikaritze materialeko aurrekontuen bilakaera obra-zuzendaritzako bisetan (mila €-kotan), 2001-2016

Hipoteka-finantzaketa

6.

- Eratutako hipoteken kuotaren bilakaera, soldata-kostuarekiko (finantza-ahalegina). EAE eta Estatuak. 2004 2004-2016
- Eratutako hipoteken kuoten bilakaera. EAE eta Estatuak, 2004-2016
- Hipoteka betearazpen eta kaleratze judizialen bilakaera EAE 2007-2016
- Gauzatutako kaleratze judizialen bilakaera arrazoiaren arabera 2013-2016
- Hipoteka betearazpena duten etxebizitzaren bilakaera EAE 2014-2016 EINaren arabera
- JANak jasotako kaleratzeak /100.000 biz. 2008-2016
- JANak aurkeztutako Hipoteka berearazpenak /100.000 biz. 2007-2016
- Hipoteka-betearazpenen kopuruaren bilakaera EAEn eta Estatuan 2008-2016 (urteko aldakuntza tasa)
- Kaleratze Hipotekarioen bilakaera EAEn eta Estatuan 2008-2016 (urteko aldakuntza tasa)
- Ordainean emateen bilakaera EAEn eta Autonomi erkidegoen arabera 2015-2016
- Ordainean emateen inzidentzia autonomi erkidegoen arabera EAEn 2016 (Ordainean emate kopurua/100.000 biztanle)

Etxebizitza laguntzak adierazle

7.

- Amaitutako etxebizitzaren bilakaera, tipologiaren arabera 2000-2016
- Babestutako alokairu parkearen dimentsionamendua EAEn 2001-2016
- Alokabidek kudeatutako etxebizitza parkearen bilakaera 2003-2016
- EAEn diruz lagundutako alokairuko parkearen ehunekoaren zenbatespena, laguntza motaren eta gastu osoaren arabera. 2016
- Birgaitutako etxebizitzaren kopuruaren eta birgaitzeko laguntzen zenbateko osoaren bilakaera. 2006-2016